Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5702

EBAZPENA 2008ko irailaren 24koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bi beka luzatzeko dena (beka horiek 2007an esleitu ziren).

Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak arautu zituen irailaren 30eko 221/2003 Dekretuan eta beka horien 2007ko uztailaren 16ko deialdi-ebazpenean ezarrita dagoenarekin bat etorriz, Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak esleitu ziren, 2007ko urriaren 2ko ebazpenaren bidez.

221/2003 Dekretauren 3. artikulua oinarri hartuta, Unai Concha Olabarrieta eta Joseba Aguirre Icobalcetak luzapena eskatu dute horretarako bidezko informea erantsiz. Eskaera kontuan hartuta, irailaren 30eko 221/2003ko Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako Aukeraketa Batzordeak esleitutako bekak beste hamabi hilabetetan luzatzeko proposamena aurkeztu du.

Horregatik guztiarengatik, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Unai Concha Olabarrieta eta Joseba Aguirre Icobalcetari beste hamabi hilabetetarako luzatzea Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 24a.

Lehendakaritzaren idazkari nagusia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

5702

RESOLUCIÓN de 24 de septiembre de 2008, del Secretario General de la Presidencia, por la que se prorrogan dos becas de especialización de personas en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior adjudicadas en el 2007.

De conformidad con lo establecido en el Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, por el que se regulan becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores y de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, y en la Resolución de 16 de julio de 2007, de convocatoria de las mismas, por Resolución de 2 de octubre de 2007 se adjudicaron las becas de especialización de personas en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior.

En base al artículo 3 del Decreto 221/2003, Unai Concha Olabarrieta y Joseba Aguirre Icobalceta, han solicitado la prórroga adjuntando el Informe procedente. En vista de las solicitudes, la Comisión de Selección designada por el artículo 7 del Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, cuyos miembros se nombran por la Resolución de convocatoria, han elevado la correspondiente propuesta de prórroga de las becas para otros 12 meses.

Por todo lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Prorrogar a Unai Concha Olabarrieta y Joseba Aguirre Icobalceta las becas de especialización en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, por un periodo de doce meses.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición, ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 2008.

El Secretario General de la Presidencia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.